DebaBarrena
Denona da, izan garbi

ELGOIBARKO URRUZUNOKO ZABORTEGIAREN 1. ETA 2. GUNEEN INGURUMEN JARRAIPENA EGITEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

KONTRATUAREN IRAUPEN ZEHATZA	2 urte
LUZAPENA	Urte 1 + urte 1
LIZITAZIOAREN AURREKONTUA	44.770 €
KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA	74.000 €
SORTAKAKO BANAKETA	Ez
PROZEDURA	Ireki sinplifikatua
ONARPEN ORGANOA	Mankomunitateko Gobernu Batzordea

1.- Sarrera

Urruzunoko zabortegia 80ko hamarkadan ireki zen, gaur egun Albitxuriko industrialdea dagoen tokian (zabortegiaren 1. eremua delakoa). Gunea bete ondoren, zabortegiaren azalera bi aldiz zabaldu egin zen, gaur egun zabortegiaren 2. eremua delakoa izatera iritsi arte, gaur egun itxita daude.

Eremu bakoitza Eusko Jaurlaritzaren ebazpenekin eta legeria desberdinekin arautzen da:

1. eremua:

- Ebazpena, 2013ko urriaren 14koa, Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena, Debabarrenako Mankomunitateari Elgoibarko udalerriko Urruzunoko zabortegia itxi ondorengo kontrola eta manteminietoa egiteko eskatzen diona.
- Ebazpena, 2018ko maiatzaren 15ekoa, zeinaren bidez deklaratzen baita Albitxuri industrialdeko 2, 4A, 4B, 6 eta 6B partzeletako lurzoruaren kalitatea. Ebazpen honek aurrekoarekiko gai batzuk ukitzen eta aldatzen ditu, eta, beraz, kontuan hartzekoa da, halaber.

2. eremua:

- Ebazpena, 2016ko urriaren 26koa, Ingurumeneko sailburuordearena, hondakin ez-arriskutsuen zabortegi-jarduerarako ingurumen-baimen integratua ematen duena, Elgoibarko (Gipuzkoa) udalerrian eta Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak sustatua (Urruzunoko zabortegia, 2. eremua).
- Ebazpena, ingurumen-iraunkortasuneko sailburuordearena, instalazioaren aldaketa ez-funtsezkotzat jotzen duena eta ingurumeneko baimen bateratua aldatzea eskatzen duena, hondakin ez-arriskutsuen Elgoibarko (Gipuzkoa) zabortegia itxi ondorengo mantentze- eta kontrol-jarduerarako Debabarrena eskualdeko

mankomunitateak (Urruzunoko zabortegia, 2. eremua) jakinarazitako aldaketa-proiektuari dagokionez.

Ebazpen bietan ingurumena kontrolatzeko neurri batzuk eta Eusko Jaurlaritzan aurkeztu beharreko memoria batzuk ezartzen dira.

Gaur egun, zabortegiaren 1. eremua zigilatuta dago, eta horren gainean Albitxuri industrialdea dago, Deba Bailarako Industrialdeak (DBI) kudeatzen duena. Urteko ingurumen-memoria egiteko informazioa Mankomunitatetik zuzenean jasoko da, nahiz eta lan batzuk DBIk egin. Lan horien gastuaren % 50 DBIren kontura izango da, 2013ko azaroan bi erakundeek sinatutako hitzarmenean ezarritakoaren arabera.

2. eremua 2022ko abuztuan zigilatu zen, eta, ondoren, Eusko Jaurlaritzak itxi ondorengo baldintzak ezarri zituen, egin beharreko jarraipen-lan gehienak ezartzeko.

2.- Kontratuaren xedea

Kontratu honen xedeak Urruzunoko 1. eta 2. eremuak barne hartzen ditu.

1. eremuari dagokion irismena:

Enpresa esleipendunak ingurumen-arloko aholkularitza- eta jarraipen-lan hauek egingo ditu:

1.- Itxi ondorengo mantentze- eta kontrol-jarduera guztiak planifikatzea, 1. eremuan egin beharrekoak.

2.- Urruzunoko zabortegiko 1. eremuari dagokion ingurumena zaintzeko urteko programa egitea, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzaren 2013ko urriaren 14ko eta 2028ko maiatzaren 15eko Ebazpenean ezarritakoaren arabera.

Airearen kalitatearen kontrolari, isurketaren uraren kalitatearen kontrolari eta kontrol topografikoari dagozkien laginak hartzeko eta analisiak kanpoko eta egiaztatutako beste erakunde batzuek egingo dituzte. Enpresa esleipenduna izango da zabortegiaren datu meteorologikoak eta balantze hidrikoa biltzearen arduraduna.

3.- Bi ebazpenetan ezarritako alderdi guztiei buruzko datuen aholkularitza eta interpretazioa, arreta berezia jarriz bioiragazki bidezko gasen kontrol-sisteman. Hiru hilean behin jarraipen-bilerak egingo dira.

4.- Behar izanez gero, enpresa esleipendunak "in situ" laguntza teknikoa emango du beste administrazio publiko batzuek Urruzunoko zabortegiko 1. eremuan egin ditzaketen ingurumen-ikuskapenetan.

2. eremuari dagokion irismena:

Enpresa esleipendunak ingurumen-arloko aholkularitza- eta jarraipen-lan hauek egingo ditu:

1.- Itxi ondorengo mantentze- eta kontrol-jarduera guztiak planifikatzea, 2. eremuan egin beharrekoak.

2.- 2. eremuko Urruzunoko zabortegiaren urteko Ingurumena Zaintzeko Programa egitea, Ingurumen Sailburuordetzaren 2016ko urriaren 26ko Ebazpenaren bidez emandako ingurumen-baimen integratuan ezarritakoaren arabera eta itxi ondorengo baldintzetan.

Airearen kalitatearen kontrolari, isurketaren uraren kalitatearen kontrolari, datu meteorologikoen bilketari, kontrol topografikoari eta balantze hidrikoari dagozkien laginak hartzeko eta analisiak kanpoko eta egiaztatutako beste erakunde batzuek egingo dituzte.

3.- Bi ebazpenetan ezarritako alderdi guztiei buruzko datuen aholkularitza eta interpretazioa. Hiru hilean behin jarraipen-bilerak egingo dira.

4.- Lizitazioaren lehen urtean, enpresa esleipendunak prebentziozko mantentze-lanen eskuliburu bat prestatuko du (zabortegia ikuskatzeko eta kontrolatzeko programa bat barne hartuta), bai eta ustiapen-eskuliburu bat ere, aldizka egindako mantentze-lanen berri emateko.

5.- Enpresa esleipendunak aurreko urteko datuen PRTRa bidaliko dio urtero Mankomunitateari.

6.- Behar izanez gero, enpresa esleipendunak "in situ" laguntza teknikoa emango du beste administrazio publiko batzuek Urruzunoko zabortegiko 1. eremuan egin ditzaketen ingurumen-ikuskapenetan.

3.- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua eta kontratuaren balio zenbatetsia

Lan hori egiteko lizitazio-aurrekontua (2 urte) ezin da gainditu, eta **44.770,00 eurokoa** izango da, BEZa barne.

Kontratuaren balio zenbatetsia (4 urte) **74.000,00 eurokoa** da, BEZik gabe

Hona hemen eremu bakoitzeko prezioen banakapena

1. eremua:

1. eremuari dagokionez, lizitazio-aurrekontua (2 urte) ezin da gainditu, eta **22.506,00 eurokoa** izango da, BEZa barne..

1. alderdiari dagokion kontratuaren balio zenbatetsia (4 urte) **37.200,00 eurokoa** da, BEZik gabe.

Zenbateko horretan sartuta daude lehiaketaren xedea gauzatzearekin lotutako lan guztiak, bai eta garraio-gastuak, dietak eta abar ere.

2. eremua:

2. eremuko Ingurumena Zaintzeko Plana egiteari dagokionez, lizitazio-aurrekontua (2 urte) ezin da gainditu, eta lan hori egiteko **22.264,00 eurokoa** izango da, BEZa barne..

Kontratuaren balio zenbatetsia (4 urte), 2. eremuari dagokiona, **36.800,00 eurokoa** da, BEZik gabe.

Zenbateko horretan sartuta daude lehiaketaren xedea gauzatzearekin lotutako lan guztiak, bai eta garraio-gastuak, dietak eta abar ere.

4.- Kontratuaren iraupena

Kontratuak 2 urteko iraupena izango du, hau da, kontratuak 2025 eta 2026 urteetako Ingurumena Zaintzeko Programak egitea barne hartzen du, urtean bi luzapen egiteko aukerarekin.

5.- Egikaritze epeak

Bi eremuetako ingurumena zaintzeko programa amaitutako urteko otsailaren 1a baino lehen entregatu beharko da, hau da, 2025eko memoria 2026ko otsailaren 1a baino lehen entregatu beharko da, eta horrela, hurrenez hurren.

6.- Ezaugarri teknikoak

Enpresa esleipenduna arduratuko da alderdi hauetaz:

1. eremua:

- Kontratu honi lotuta ez dauden baina txostenak idazteko funtsezkoak diren itxi ondorengo mantentze-lanetan eta kontrolean egindako lan partikular guztien plangintza, jarraipena, koordinazioa, egiaztapena eta baliozkotzea.

Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina egitea, baimen-eskaeran eta ebazpen honetan proposatutako betebeharrak jasoko dituena. Programa horrek honako hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisien edo neurketen maiztasuna, laginketa- eta analisi-teknikak, eta laginketa-puntuen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua jaso beharko du.

Gainera, ingurumena zaintzeko programak jardueraren adierazle bereizgarrien zehaztapena eta adierazle horiek aztertzeko sistematika barne hartu beharko ditu, enpresak berak ingurumen-hobekuntza ziurtatzeko ezarritako neurrien eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatzea ahalbidetuko dutenak (ingurumen-adierazleak).

- Diziplinarteko analisitik eratorritako ondorioak eta gomendioak txostenetan jasotzea, zabortegiari lotutako arriskuei eta horiek ingurumenean dituzten ondorioei dagokienez sortutako eta analisitik eratorritako dokumentazio guztia tartekatuz.

Txosten horretan, neurri babesle eta zuzentzaileen funtzionamendua, prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistemak bilduko dira, eta emaitzen analisia egingo da, aldi horretan izandako gorabehera

garrantzitsuenak, horien balizko kausak eta konponbideak bereziki aipatuta, bai eta laginak nola hartu diren ere, aldez aurretik zehaztu ez bada.

- Planari egoki iritzitako aldaketak definitzea, proposatzea eta egokitzea, egin beharreko kontrolak eta horietarako baliabideak optimizatzeko.

Zehazki, honako alderdi hauek garatuko ditu:

- Esku-hartzaileekin koordinatzea: epeak, eskaeren eta entregen araberako datu-bilketa.
- Indarrean dagoen araudia berrikustea eta jakinaraztea.
- Ekipoen eta materialen ziurtagiriak berrikustea eta biltzea.
- Neurri babesle eta zuzentzaileen deskribapena: ingurumen-inpaktu negatiboak prebenitzeko edo arintzeko ezarritako neurrien funtzionamenduaren ebaluazio zehatza.
- Prozesuak eta ingurumen-kalitatea kontrolatzeko sistemak: Prozesu eragileak eta ingurumenaren kalitatea monitorizatzeko erabiltzen diren kontrol-sistemei buruzko informazioa.
- Laginak hartzearen xehetasuna: laginketa-prozedurak zehaztea, laginketa-puntuen kokapena, erabilitako teknikak eta neurketen maiztasuna barne.
- Ingurumen-adierazleak: ingurumen-hobekuntza etengabea ziurtatzeko ezarritako neurrien eta mekanismoen eraginkortasuna ebaluatzea ahalbidetuko duten adierazleak zehaztea eta aztertzea.
- Emaitzen analisia: zaintza-aldian lortutako datuen azterketa sakona, gorabehera garrantzitsuenak, horien kausa posibleak eta hartutako konponbideak nabarmenduz.
- Aurrekontua: ingurumena zaintzeko programa ezartzeko eta mantentzeko esleitutako baliabideak zehazten dituen aurrekontua.
- Urtean zehar aurkeztu beharreko emaitzen txostenak idaztea

- Urteko txostena idaztea

Datuak bildu, aztertu eta interpretatu beharko dira, eta neurri zuzentzaileak proposatu, beharrezkoak izan gabe, honako alderdi hauei dagokienez:

- Airearen kalitatearen kontrola: 1. eremuko hondakindegiko desgasifikazio-saretik lortutako datuen interpretazioa, kontratu honi lotuta ez dauden agenteek emandakoak. Desgasifikazio-sareko bioiragazkiei eta putzuei buruzko proposamenak.

- Isuritako uraren kalitatearen kontrola: lixibiatuen, lurpeko uren eta azaleko uren kontrol-puntuen saretik lortutako datuen interpretazioa, kontratu honi lotuta ez dauden agenteek emandakoak.

- Balantze hidrikoa eta kontrol meterologikoa: urteko balantze hidrikoa egitea; horretarako, erregistratutako lixibiatuen emariari buruzko datuak eta erregistratutako datu meteorologikoak erabiliko dira, bai eta zabortegiaren gainazalean gertatzen diren aldaketen plano topografikoak ere.

- Kontrol topografikoa: kontratu honekin loturarik ez duten eragileek emandako datuen interpretazioa.

- Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea: AZP Mankomunitatera bidaltzea, Eusko Jaurlaritzan aurkezteko, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak horretarako prestatu duen AZPren gidaren arabera.

2. eremua:

- Kontratu honi lotuta ez dauden baina txostenak idazteko funtsezkoak diren lan partikular guztien plangintza, jarraipena, koordinazioa, egiaztapena eta baliozkotzea.

Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina egitea, baimen-eskaeran eta ebazpen honetan proposatutako betebeharrak jasoko dituena. Programa horrek honako hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisien edo neurketen maiztasuna, laginketa- eta analisi-teknikak, eta

laginketa-puntuen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua jaso beharko du.

Gainera, ingurumena zaintzeko programak jardueraren adierazle bereizgarrien zehaztapena eta adierazle horiek aztertzeko sistematika barne hartu beharko ditu, enpresak berak ingurumen-hobekuntza ziurtatzeko ezarritako neurrien eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatzea ahalbidetuko dutenak (ingurumen-adierazleak).

- Diziplinarteko analisitik eratorritako ondorioak eta gomendioak txostenetan jasotzea, zabortegiari lotutako arriskuei eta horiek ingurumenean dituzten ondorioei dagokienez sortutako eta analisitik eratorritako dokumentazio guztia tartekatuz.

Txosten horretan, neurri babesle eta zuzentzaileen funtzionamendua, prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistemak bilduko dira, eta emaitzen analisia egingo da, aldi horretan izandako gorabehera garrantzitsuenak, horien balizko kausak eta konponbideak bereziki aipatuta, bai eta laginak nola hartu diren ere, aldez aurretik zehaztu ez bada.

- Planari egoki iritzitako aldaketak definitzea, proposatzea eta egokitzea, egin beharreko kontrolak eta horietarako baliabideak optimizatzeko.

Zehazki, honako alderdi hauek garatuko ditu:

- Esku-hartzaileekin koordinatzea: epeak, eskaeren eta entregen araberako datu-bilketa
- Indarrean dagoen araudia berrikustea eta jakinaraztea
- Ekipoen eta materialen ziurtagiriak berrikustea eta biltzea
- Neurri babesle eta zuzentzaileen deskribapena: ingurumen-inpaktu negatiboak prebenitzeko edo arintzeko ezarritako neurrien funtzionamenduaren ebaluazio zehatza.
- Prozesuak eta ingurumen-kalitatea kontrolatzeko sistemak: Prozesu eragileak eta ingurumenaren kalitatea monitorizatzeko erabiltzen diren kontrol-sistemei buruzko informazioa.

- Laginak hartzearen xehetasuna: laginketa-prozedurak zehaztea, laginketa-puntuen kokapena, erabilitako teknikak eta neurketen maiztasuna barne.
- Ingurumen-adierazleak: ingurumen-hobekuntza etengabea ziurtatzeko ezarritako neurrien eta mekanismoen eraginkortasuna ebaluatzea ahalbidetuko duten adierazleak zehaztea eta aztertzea.
- Emaitzen analisia: zaintza-aldian lortutako datuen azterketa sakona, gorabehera garrantzitsuenak, horien kausa posibleak eta hartutako konponbideak nabarmenduz.
- Aurrekontua: ingurumena zaintzeko programa ezartzeko eta mantentzeko esleitutako baliabideak zehazten dituen aurrekontua.
- Urtean zehar aurkeztu beharreko emaitzen txostenak idaztea

- Urteko txostena idaztea

Alderdi hauek bildu, aztertu eta interpretatu beharko dira::

- Airearen kalitatearen kontrola: 2. eremuko hondakindegiko desgasifikazio-saretik lortutako datuen jarraipena, kontratu honi lotuta ez dauden agenteek emandakoak.

- Isuritako uraren kalitatearen kontrola: lixibiatuen, lurpeko uren eta azaleko uren kontrol-puntuen saretik lortutako datuen jarraipena, kontratu honi lotuta ez dauden agenteek emandakoak.

- Datu meteorologikoak biltzea: datu meteorologikoak ematea, Ingurumen Baimen Bateratuan ezarritakoaren arabera. 1. eremuari dagokion atalean egindakoa erabiliko da.

- Zabortegiaren balantze hidrikoa: memoriak atal hauek izango ditu. 1. eremuari dagokion atalean egindakoa erabiliko da.

- Jardueraren adierazleak kontrolatzea: "2. eremuan sortutako guztizko lixibiatuak" adierazlearen urteko jarraipena egitea.

- Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea: Ingurumena Zaintzeko Programa Debabarreneko Mankomunitatera bidaltzea, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak horretarako prestatu duen AZP gidaren arabera.

7.- Eskaintzak bete behar dituen gutxieneko baldintzak

Nahitaez zehaztu behar dira lehiaketaren xede diren zerbitzuak emateari atxikitako giza baliabideak eta baliabide materialak, horien kualifikazioa eta beste ezaugarri garrantzitsu batzuk. Enpresa lizitatzaileko teknikari bat, gutxienez, Mankomunitateko zerbitzu teknikoen esanetara egon beharko da kontratuak irauten duen bitartean, AZPek biltzen dituzten alderdiei buruzko zalantzak argitzeko, telefono edo posta elektroniko bidez.

Egin beharreko lanetan emango diren orduen justifikazioa aurkeztu beharko da. Langile horiek geroago ordeztu behar badira, Administrazioak ordezkapena onartu beharko du, izendatutako teknikari berrien “curriculum vitae” aurkeztu ondoren.

Nahitaezko baldintza da kaudimena egiaztatzea; horretarako, ziurtagirien bidez egiaztatuko da zabortegietan ingurumen jarraipena (bai e-DMA, bai Ingurumen Zaintzako Programak) egiten lortutako gutxieneko esperientzia, hain zuzen, gutxienez 2 azken 5 ekitaldietan.

Nahitaezko baldintza da ahalik eta ingurumen inpaktu txikiena egitea, lizitazioaren xede diren zerbitzuak ematen diren bitartean. Horretarako, saihestuko dira paperezko dokumentuak eta, txostenak aurkezteko, metodo telematikoak erabiliko dira. Ahal den heinean, autoz egiten diren joan-etorriak saihestuko dira, eta koordinazio bilerak linean egingo dira.

Baldintza horiek betetzen ez dituen eskaintza baztertu egingo da hautaketa-prozesutik.

8.- Egikaritzeko baldintza bereziak

Enpresa adjudikaziodunak honako baldintza berezi hauek beteko ditu, gizarte eta ingurumenari dagokienez.

1.- Gizarte arloko baldintzak:

Enpresa adjudikaziodunak bete beharko du 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, eta EAEn indarrean dagoen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana garatzen duena.

2.- Ingurumen arloko baldintzak:

Enpresa adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du lan egin bitartean berotegi-gasen isuriak murrizteko; horretarako, saihestuko ditu joan-etorriak, beharrezkoak ez badira, eta ezinbesteko bidaietarako erregai alternatiboak erabiltzen dituzten ibilgailuak baliatuko ditu.

Enpresa adjudikazioduna ahalik eta hondakin gutxien sortzen saiatuko da, berrerabil daitezkeen materialak berrerabiliko ditu, eta gaika bereiziko ditu lana egin bitartean sortzen diren hondakin guztiak.

9.- Adjudikazio irizpideak

Kontzeptu horiek direla eta, gehienez ere 75 puntu emango dira.

IRIZPIDE AUTOMATIKOAK:

Eskaintza ekonomikoa, eskainitako zerbitzuaren prezioa

Kontzeptu hau dela eta, gehienez ere 75 puntu emango dira.

Prezioaren araberako proposamen ekonomikoak honako puntuazio sistema honen arabera ebaluatuko dira:

Proposamen ekonomikoa zerbitzua egiteagatik ordaindu behar den prezioa da, BEZa barne.

Eskaintza ekonomikoei dagozkien puntuazioak, alegia, onartutako proposamenei dagozkienak, interpolazio linealaren bidez kalkulatuko dira, bi puntuek mugaturiko zuzenaren arabera: gehieneko puntuazioa edo P2 (Gehieneko beherapena, gehieneko puntuazioa jasotzen duena: 75 puntu) eta P1 edo gutxieneko puntuazioa.

Puntuak esleitzeko, honela jokatuko da:

P2 – Proposamen ekonomiko baxuenari dagokion puntua (Gehieneko beherapena, abzisen ardatzean); horri gehieneko puntuazioa esleituko zaio ordenatuen ardatzean (75 puntu).

P1 – Puntu hau, abzisen ardatzean, gehieneko lizitazio prezioa (BEZa barne) adierazten duen eskaintzarekin bat datorren beherapenari dagokio. Ordenatuen ardatzeko balioa, eskaintza horri dagozkion puntuetan, honako formula hau aplikatuz kalkulatzen da:

P1 = 75 x (1 – (3 x Bmax))

(Bmax = Gehieneko beherapena)

P1 kalkulatuta lortutako emaitza negatiboa bada, zero dela joko da.

Beherapena (Bi) lizitazio prezioaren eta "i" proposamen ekonomikoaren arteko diferentzia da (BEZa barne), zati lizitazio prezioa; "i" horrek 1etik n-ra bitarteko balioak hartzen ditu, non "n" onartutako lizitazioen kopurua den.

Aurrerago aipatutako zuzena lortzeko, lehiaketan onartutako eskaintzak bakarrik hartuko dira kontuan.

Balio anormalak edo neurriz kanpokoak dituzten eskaintza ekonomikoak:

Izan ere, "i" proposamen ekonomiko bat baxuegia dela eta, ondorioz, proposamen ekonomiko anormala edo neurriz kanpokoa dela esango da, eskaintza horri dagokion "i" beherapenak (Bi) lehiaketan onartutako eskaintza guztien batez besteko beherapena 10 puntu portzentualetan gainditzen duenean, non "i" horrek 1etik "n"-ra arteko balioak hartzen dituen, eta "n" baloratzeko onartu diren eskaintzen kopurua den.

Eskaintza batean edo batzuetan hasiera batean neurriz kanpoko beherapena antzematen bada, baina aztertu ondoren eskainitako prezioak proiektua burutzeko egokiak direla ulertzen bada, neurriz kanpoko beherapena dagoela pentsarazi duen desbiderapena behar bezala justifikatzen baita, proposamen horiek baliagarritzat joko dira eta onartuko dira, eta azken eskaintza ekonomikoenari (gehieneko beherapen berria) dagokiona birkalkulatuko da P1 puntu gisa; gehieneko puntuazioa emango zaio, hau da, 75 puntu."

BALIO JUDIZIOEN BIDEZ EBALUATU BEHARREKO IRIZPIDEAK

Atxikitako giza baliabideak

Kontzeptu horiek direla eta, gehienez ere 25 puntu emango dira, eta balio judizioen bidez ebaluatuko dira.

7. puntuan eskatzen diren nahitaezko balditzez gain, honako hauek baloratuko dira:

Lantaldearen diziplina aniztasuna. Enpresa lizitatzaileek aurkeztuko dituzten curriculumak aztertuz baloratuko da.

Enpresa lizitatzailearen eta proposatutako langileen esperientzia kontratuaren xede denaren antzeko lanetan, kaudimen gisa eskatzen den gutxienekoa baino handiagoa.

Proposamenek, dagokien Txosten Teknikoan, zehaztu beharko dituzte kontratua gauzatzeaz arduratuko diren langile teknikoen izen-abizenak eta kualifikazio profesionala, prestakuntza egiaztatzen duen dokumentazioa (titulazioa) eta kontratuaren xede dena bezalako lanetan –zabortegien ingurumen jarraipena, azken hamar (10) urteetan egindakoa edo gauzatzen ari dena– duten lanbide esperientzia (curriculum xehea) erantsita.

Proposatutako bitartekoak kontratuari benetan atxikitzea funtsezkotzat jotzen da.

10.- Berdinketa ebazteko irizpideak

Eskaintza biren edo gehiagoren artean berdinketa gertatuz gero, honela jokatuko da:

- Enpresa bakoitzeko plantillan desgaitasuna duten edo gizarte bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena konparatuko da; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan langile gehien duena.

Berdinketa ebatzi ezean, langileen artean aldi baterako kontratu gutxiago dituen enpresa lehenetsiko da.

Berdinketak bere horretan jarraitzen badu, plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresaren alde ebatziko da.

Hala ere, ebazten ez bada, zozketaren bidez ebatziko da, baldin eta aurreko irizpideak aplikatzeak berdinketa hautsi ez badu.

11.- Lizitazioaren oinarrizko prezioa kalkulatzeko metodoa

Lizitazio prezioa kalkulatzeko, aintzat hartu da jarraian azaltzen den kostuen banaketa, kostua osatzen duten sail desberdinen garrantzia honako hau izanik: Zuzeneko langileen gastua: % 60; zeharkako langileen kostua: % 4; horniduren kostua: % 10; finantza gastua: % 2; ibilgetuaren amortizazioa: % 5; gastu orokorrak: % 13; mozkin industriala % 6; hau da, gastu orokorrak kostu osoaren % 75 dira, zeharkako gastuak % 6 eta beste gastu batzuk % 19.

Urruzunoko 1. gunearen ingurumen txostena egiteko zerbitzuari dagozkion kostuen kalkulua

Kostuen banakapena, kontzeptuen arabera	Kontzeptuak kostuetan duen garrantziaren %				Kontzeptuak kostuetan duen garrantzia eurotan (BEZ KANPO)			
	Zuzeneko kostuak	Zeharkako kostuak	Egon daitezkeen beste gastu batzuk		Zuzeneko kostuak	Zeharkako kostuak	Egon daitezkeen beste gastu batzuk	
Langileen gastua – zuzeneko eskulana	0,60				22.200,00	0,00	0	0
Langileen gastua – zeharkako eskulana		0,04			0,00	1.480,00	0	0
Hornidurak	0,10				3.700,00	0,00	0	0
Gastu finantzarioa		0,02			0,00	740,00	0	0
Ibilgetuaren amortizazioa	0,05				1.850,00	0,00	0	0
Gastu orokorrak			0,13		0,00	0,00	4.810,00	0
Mozkin industriala				0,06	0	0	0	2.220,00
GUZTIRA	0,75	0,06	0,13	0,06	27.750,00	2.220,00	4.810,00	2.220,00
	1				37.000,00			